

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko uztailearen 21a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Uitzi • Greenpeace talde ekologistak Orixenea aterpean antolatutako udalekuan 200 ume madrildarrek parte hartuko dute uztailean.

Tomas Sobrino • «Paisaiak batzen gaitu»

Autobusean festaz festa

jai bus




Altsasu, Etxari eta Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileek Jaibusa ekimena prestatu dute. Ekimen honekin trafiko istripuen prebentzio kanpaina bat egin nahi da, Sakanako herrietako festetara joateko autoa hartzea ez baita beharrezkoa izango aurrerantzean. Irurtzundik Ziordiraino, Sakanako herrietako festetara jendea eraman eta ekarriko duen autobusa martxan da jada. Ez da ildo honetan Nafarroan egiten den saio bakarra, Erribera aldean Voy y vengo izenarekin aspalditik ezaguna da antzeko zerbitzu bat, eta Baztan aldean ere antzeko zerbitu egiteko eskaera egin dute.

Irurita ●

VI. Garagardo Besta

Rosendo abeslari ezagunak parte hartuko du aurten

Aurten ere helburu berezi bat daukate iruritarrek, kontzertuan lortutako diruarekin kultur etxe bat eraiki nahi dutelako. Iruritik 800 biztanle inguru ditu, eta bertakoek ahalegin berezia egin dute urtez urte jaialdi erraldoia antolatu ahal izateko.



Rosendo abeslaria izanen da entzungai aurten Iruritako Garagardo Bestan. ● EGUNKARIA

GARAGARDO BESTARI DAGOKIONEZ, aurten Cruzcampo etxea izango da babesle nagusia, etxe honetako garagardoez gain beste hamabost marka probatzeko aukera egonen da, guinness, heineken, wieckse wite, desperado, aguila amstel, Murphy gorria, keler, bucker, shandy, affligen dubble eta tripple eta ficher. Erreboteko plazan igaroko da jaialdi guztia, 2.000 metro koadrotan. Nahi dutenentzat antolatzaileek kanpin dendak jartzeko zelaia moldatu dituzte, eta egun berezi honetarako, autoentzako aparkalekuak

ere irekiko dira, hau guztia doan. Antolatzaileek ere taberna bereziak jarriko dituzte garagardoa maite ez dutenentzako.

Jaialdian zazpi taldek parte hartuko dute. Izarririk distiratsuen Rosendo abeslaria izanen da, eta honekin batera Ajariguan, The Bon Scott Band, Tutumba, Hamlet, 2-Kate eta Zeta & Guateke All Stars taldeek osatzen dute egitaraua. Mota guztietako musika, entzule guztietara

iristeko. Garagardo bestara sartu nahi izanez gero, 2.500 pezetetako sarrera ordaindu beharko da.

Zazpigarren aldia izanik, aurreko urteetan izen handiko taldeak igaro dira Iruritik, horien artean Baron Rojo, M-Clan, Tapia eta Leturia, S.A., Raimundo Amador, Amparanoia, Kojon Prieto y los huajalotes eta abar.

Itziar Obregozo antolatzailearen esanetan: "Aurten aurrekontua txikiagoa izango

bada ere, seguritatearen alorrean lan berezia egin dugu, ezbeharririk gerta ez dadin.

Ehun pertsona inguru arduratuko dira dena ongi atera dadin; gehienak iruritarak izanen dira (16 urtetatik hasita, gutxi gorabehera 60 urte artekoak guztiak). Dena prest dago jaialdiari hasiera emateko, eguraldia lagun, zapietan hasiko dira kontzertuak.

→ Rakes Goñi

Bera ●

Indurainen omenezko txirrindula martxa

URTERO ABUZTUAREN 15ean korritu ohi den Miguel Indurainen omenezko zikloturismo martxa igande honetan korrituko da. Uztailean iragan izanaren arrazoi nagusia Txirrinduzaleentzako IX. martxarekin batera antolatutako txirrindula azoka izan da.

Gaur arratsaldean irekiko ditu ateak azokak, eta igande iluntzea arte bisitatu ahal izanen da. Txirrindu eta osagaien azoka da antolatu dutena, eta Berako kiroldegian punta-puntako enpresak bilduko dira. Txirrinduak, jantziak, kronometroak, elikagaiak, txirrinduentzako osagaiak eta material guztia ikusi eta erosi ahal izanen da. Azoka lehendabizikoz antolatu dute, «txirrinduzaleentzat erakargarriren bat gehiago eskaini asmotan», argitu zuen Enrique Irazoki antolatzaileak.

Baina txirrinduzaleentzat hitzordu nagusia igandean izanen da. Azken urteotako joerari jarraiki, bi milatik goiti txirrinduzale elkartzeko da Beran Miguel Indurainen omenezko ibilaldia egitea. Bi ibilbide izanen dira aukeran. Luzeenak 179 kilometro luze du. Laburrenak, aldiz, 106 kilometro. Probak goizeko 08:30ean eta 09:00etan hasiko dira.

→ Jon Abril

muga enea

MIKEL REPARAZ



Endogamia kosmikoa

Aurten lortu dut, ez dut ingelesik praktikatu festetan. Hitzik ere ez. Bazen garaia. Urtero egiten baitut topost giri baten sandaliek adokin labainen gainean, eta burua altxa ahailean haren belaun biluziak kausitzen ditut, eta Australiatik honat arrastaka ekarritako pantalon motxak, eta eh toro oihu egiten duen kamiseta zuri-gorriarekin bat datorren zapi gorria kopetan daramala, txepelki «hola amigo» dioen mozkor irribarratsua. Europako leku gutxitan bezala, Iruñean ez dira harriak turistak erakartzen dituztenak, izan ere. Ez eraikinak, ez eta Commonwealth zabaleko azken oihan-zidorretik ekarritako landare exotikoz osatu parke erraldoiak. Ez, Norvegiako morroi bati aditu nion behin: zuek zarete, iruinseme-alabok, atzerriarrok aurkikuntzarik ikusgarriena! Jendea-

ren beroa, festaren eta izerdiaren konbergentzia kosmikoa, jaunartze etilikoa. Sevillatik Pariserako bidean koadernoan Iruñeko esperientziak idatzi duen anglosaxoi zein eskandinaviar orok antzeko iruzkina egin duela apustu. The Pamplona Experience, noski.

Baina nik aurten ez dut ingelesik praktikatu. Lortu dut. Aurten besteren bat arduratu bide da lan horretaz. Eta lortu dudala diot, endogamiari eskaini baitizkiot festa egunak, zapi gorriak begiak estalirik «sorry sir» guziak saihesteari. Aitortzen dut «las barracas vascas, por favor» galdezka etorri zitzaigun madrildar haren lepotik ere barre egin genuela. Eta ene buruari galdegiten diot orain, ikaraturik, politikoki zuzen izan ote den nere jokabidea. European barrena dabilzan motxilari

horiek guziek ez ote didaten nolabait pelota itzulkiko. Oporrak heldu baitira orain zenbaitzuek, atzerrian atzeritar izateko tenorea, eta Pisako dorrearen aitzinean elkartzeko diren nipo argazkizaleez gain, euskal herritar franko abiatuko da Italiako konbergentzia kosmikorekin. Erantzuna ediren bitartean, endogamia kosmikorekin apologia egin nahi nuke. Italiarrok, australiar zein norvegiarrok, jar itzazue zuzen sanferminetako zapi gorriak begietan eta etxe atarian eseri, giri galduei begira. Ahaztu turismo bulegoetan ikasitako esaldiak, matxinatu protokolo hipokritaren aurka, eta edukazio finenaz, eskua apal jasoz, ezjakinarena egin, konbergentzia kosmikorekin hitzak mantso ahoskatuz: «aupa, hi». Suediarrek aspaldi ikasi zuten hori.

Uitzi • Orixenea, Greenpeace taldekoen aterpe

Leitzan, Areson, Lekunberrin eta Zubietan egonen dira umeak bi hilabetez

Uztailean, Orixenea aterpean madrigo 200 bat umek parte hartuko dute udalekuan. 65 gaztek desagertzeko arriskuan dauden herriak ezagutzeko aukera izanen dute.



Madrigo 200 ume etorriko dira Uitzira uztailean, Greenpeace antolatutako udalekuetara.

• ELI BELAUNTZARAN

HURRENGO HAMAR EGUNETAN, aukera paregabea izanen dute Madrildik etorritako gazteek Uitzin lasai egoteko. Inguruko parajeak ezagutzeaz gain, herrian dauden gazta egileek produktu estimatu hori nola egiten duten erakutsiko diete, eta era naturalean egindako mamia ere dastatuko dute besteak beste. Hirugarren urtea da Greenpeace taldeak horrelako udaleku bat antolatzen duela; aurreko urteetan Valentzia eta Kantabrian egin zituen, eta Orixeneako proiektua ere aproposa omen da beren asmoak lortzeko, Hailaneko filosofia bat datorrelako talde ekologistarenerekin.

Greenpeace ekintzek helburu bakarra dute, han eta hemen pairatzen dituzten egoera larriak ezagutzera ematea. Horretarako, astean zehar Itóitz herria bisitatuko dute eta bertan, elkartasuna erakutsi dien lagun batek urtegiaren lanen berri emanen die, eta ondoren Irati eta Urrobi ibaiak bisitatuko dituzte, han bizi diren animaliak ezagutzeko. Tafalla ondoko Gerindako parke eolikoa ikusiko dute, energia lortzeko era ezagutzeko.

Hondarribira joateko asmoa ere badute, Polinesiaren omenez egiten duten egunera, eta han, itsasoan eta arrantzaren arazoak aztertuko dituzte gazteekin.

Afrikako egunean, egun osoan energiaren eguna ospatuko dute, eta gauean, astrologiari buruz mintzatuko dira, eta zeruko izar gehienak diaporama batean ezagutuko dituzte.

Asteazkenean, Amazoniaren eguna ospatuko dute, eta Guratz mendira igoko dira,

Mugariberri bisitatzeko. Irtenaldi bakoitzean antolatutako tailerretan hainbat ekintza egingo dituzte. Aralako irtenaldian, txorientzat egurrez egindako habiak jarriko dituzte.

Desagertzeko arriskuan dauden animaliei buruz ere hitz egin behar dute. Horren ostean, gazteenek herrian barna joanen dira ipar orratz batekin, inguruko pagadiak eta animaliak ezagutzera.

→ Eli Belauntzaran



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Arkupeak elkartearen omenaldia

EKAINAREN bukaeran urteroko Anaitasun Besta ospatu zuen Arkupeak jubilatuen elkarteak Donezteben, eta, egun hartan, urrezko ezteiak eta 85 urte bete dituzten elkartekideek omenaldia jaso zuten. Horren berri ematen du **Ttipi-ttapa** aldizkariaren azken zenbakiak: «Aurtengoan Arkupeak elkarteak 31 kidek egin dituzte 85 urte eta hamabortz senar-emaztek ospatu dituzte Urrezko Ezteiak. Besta giro ederra izan zuten egun osoan Doneztebera hurbildu ziren 800 erretiratuek. Herri ezberdinetatik etorritako

autobusak ailegatu ondok Meza Nagusia eman zuen San Pedro elizan Jesus Golaraz apezak. Elizatik Bordaxoko bidea hartu zuten, urtero bezala Argetasko Moderno jatetxeak eskaintako bazkari ederra dastatzeko. Bazkal ondok dantzan aritzeko aukera ederki probextu zuten jubilatuek».

«Gaur egun 3.500 bazkideetik goiti ditu Arkupeak elkarteak eta joan den urtean antolatu zituen 25 bidaietan 13.250 lagunek hartu zuten parte. Egun bakarrek hamalau txangoetan 6.395 erretiratuk eman zuten izena.

Egun bat baino gehiagoko bidaietara (Benidorm, Frantziako Tourra, Hondarribia, Andorra,...) 7.125 pertsona joan ziren».

«Etorrizunera begira, lehendabiziko ekitaldi handia uztailearen 26an Bertizzen egiten den Aitatxi-amatxien Eguna izanen dute Arkupeak elkarteak kideek. Goizean goiz nahi dutenek Aizkolegira mikrobusetan joanen dira. Handik Bertizera jaitsiko dira, batzuk oinez eta bertzeak autobusez. Bertiz bisitatu ondok, Meza eta bazkaria Almandozen izanen dute».

Inurriak

Orain da garaia. Txinaurri, txingurri, inurri aroa. Orain ateratzen dira bai arrak bai eta emeak ere, biak hegaldunak, inurri-tegiatik. Haize berezi baten esperoan egoten dira aro honetan. Inurritegiaren kanpoan antenak gora jartzen dituzte eta Noaingo aireportuaren antzera hezetasuna, airearen tenperatura eta indarra neurtzen dute. Inork ez daki erabakia zehazki nork eta noiz, puntualki, hartzen duen, baina allegatzen da une bat non haizea egokia iruditzen zaien, non inurri guzti-guztiek badakiten arratsalde horretan bertan burutuko dela inurritegiaren ezkontza dantza. Orduan alde batetik bestera hasten dira denak lur azpitik ateratzen gora, agindua «denak gora» izango balitz bezala, bere lengoia kimikora itzuli behar izatekotan «atino alkoholaren molekula bi gehi azido formikoaren molekula bat» edo antzeko zer edo zer izan liteke. Formula asmatzen ari naiz, noski. «Denak gora» esaten dutela, hori seguru. Horrela ikusten baititugu inurri guztiak, inurritegiaren kanpoaldean geldidiro-geldiro ateratzen diren hegaldunak laguntzen. Gero haize berezi hori probextuz hegala astindu eta zerura egiten dute. Esan behar da hau ez dela horren sinplea. Inurriak jaioberriak eta itsuak baitira. Ezagutzen duten guztia lur hezearen usaina eta molekulen hitz jarria da. Datu hauek kontuan harturik irudikatu behar dugu, beraz, airera egiten duten jauzi hori. Haizean molekulen bidea marrazten dute emeek, feromonen bitartez. Oihu isil hori jarraituz hegan egingo dute arrek ere. Airean egingo dute txortan, bizitza guztian zehar txortan egingo duten aldi bakarrean. Inurri emeak, orduan, erreginak bihurtuko dira eta lurrera jaitsiko dira zulo baten bila, zulo baten bila. Arrak, aldiz, airean ordu batzuk eman ondok, tonaka eroriko dira lurrera hilik edo hil-zorian.

Iruñeko kale nagusian eroriko dira, esate baterako. Gure gainean jauziko dira ur tanta beltz, arraro, batzuen antzera. Artikulua idazteko etxeratzeko tenorean eroriko zaizkigu gainera. Arratsalde horretan, euriaren orde, «inurria ari du»-esango dugu (eta baita idatziko ere). ●

Autobus festazalea

Sakanako herrietako festetara joateko autobus zerbitzua sortu da

Ekainaren 24an, San Juan festak zirela-eta hasi zen martxan Sakanako herrietako jendea festetan zen eskualdeko herrira autobusez eramateko ekimena. Ideiak oso harrera ona izan zuen lehen egunean, eta Etxarri, Irurtzun eta Altsasuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek (ekimenaren bultzatzaileak) datozen urteetan zerbitzu horrek herritarren erabateko oniritzia izatea espero dute.

Sakanako herriren bateko festetara joan nahi duten bailarako lagunek ez dute bada alkoholak eragin ditzakeen auto istripu eta trafiko isunen beldurrik izan behar. Etxarri, Irurtzun eta Altsasuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek trafiko istripuen prebentzio kanpaina bati ekin diote, horretarako Sakanako herrietako festetara joateko autobus zerbitzu bat antolatuz.

Harrera bikaina izan zuten ekainaren 24an, San Juan festak zirela eta, Arbizu eta Uhart-Arakilera joateko jarritako zerbitzuek. Eta ez da harritzekoa ekimen arrakastatsua izatea, denori gertatu baitzaigu noiz edo noiz herriren bateko festetara joan eta jai giroaz behar bezala ezin gozatu izana itzuleran autoa hartu behar duzula.

Josune Zabala Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileak eta Luci Gonzalez De Pedroso Etxarriko Gizarte Zerbitzuetako langileak adierazi zigutenez, «Sakana oso sakabanatuta dauden herri txiki askok osatzen dutenez, eta gauean garraio publikorik ez izatean jendeak alde batetik bestera joateko arazoak dituzenez, proiektu hori martxan jartzea pentsatu zen». Lehenago, proba batzuk egin ziren jai batzuetan, eta orain, uda eta udazken hasierako jai guztietarako, prest da zerbitzua. Luci eta Josuneren ustez, «horren helburu nagusia kalteak murriztea da, trafiko istripu gutxiago izatea. Hala ere, bide batez, alkohol gehiegi edateagatik jasotzen diren isunak murriztea eta jai baten ostean etxera bueltatzea erraztea espero da, gazteak alkoholaren kontsumoak berarekin daraman erantzukizunaz kontzientziazteaz gain».

Autobusaren helburu nagusia kalteak murriztea da, trafiko istripu gutxiago izatea. Hala ere, bide batez, alkohol gehiegi edateagatik jasotzen diren isunak murriztea eta jai baten ostean etxera bueltatzea erraztea espero da, gazteak alkoholaren kontsumoak berarekin daraman erantzukizunaz kontzientziazteaz gain

man erantzukizunaz kontzientziazteaz gain».

Horrelako ekimenek gazteak alkohola hartzea behartzen dituela esaten duenik ere ez da falta, baina Josunek eta Lucik, bertakoak izanik, garbi dute Sakanan berdin edaten dela «autobusa egon edo ez. Horregatik, alkohol kontsumoa murriztea baino gehiago, auto istripuak eta alkoholemia kontrolek eragindako isunak murriztea da helburua». Eta ez zaie arrazoirik falta; parranda ostean autoa hartzen zutenek berean jarraituko dute ziurrenik, baina festetan izan ondoren etxera itzultzeko taxi hartzen duenik ere izaten da, eta halakoen-tzat autobusa sekulako mesedea izanen dela ezin ukatu.

Parranda egitera irteerako gazteez gain, beste batzuk ere gustura egonen dira nolana; esate baterako, oraindik autoa gidatzeko baimena lortzeko adinik ez dutenen gurasoak. Hainbat aldiz joan behar izaten dute horiek euren seme-alaben bila gustuen ohean lo egonen zirenean, baina aurrerantzean, Sakana aldean behintzat, ez dute horrelako esfortzurik egin behar izanen. Nahikoa izanen dute autobusean joan-etorria egiteko beharrezkoak diren 150 pezeta ematea euren seme-alabei.

Adin guztietako jendea

Auto istripuak murrizteko antolatuturiko autobusak gaztetxoek etxera arazorik gabe itzultzeko ere balio du, beraz, Josunek eta Lucik aitortu ziguten «kotxe istripuen prebentzio gisa hasitako gauza bat kotxerik ez dutenek bakarrik erabiltzeak» beldur pixka bat eragin ziela hasieran, baina Arbi-

zu eta Uhart-Arakilgo jaietan garbi ikusi zen gaztetxoek ez ezik helduagoek ere nahiago dutela garraio publikoa erabiltzea. Ekimenaren bultzatzaileak autobus gidariaren aldamen txartelak eman eta Jaibusaren erabiltzaileen balorazioa eginen

Sakanako errepideak goitik behera zeharkatuko ditu Jaibusak bertako gazteak baileko herrietako jaietara eramanez eta atzera etxera itzultziz.

INAKI VERGARA

duen pertsona bat jarri dute, eta San Juan festetan behintzat «adin guztietako jendeak» erabili omen zuen Jaibus, «hamabost, hamasei urteetakoekin zein hogeita hamar urtetik gorakoekin».

Jaibusaren lehen bidaia hartan sekulako

giroa sortu zen bidaiarien artean. Festaz gozatzeko irrikitan zihozazek nahiz etxera bueltan zihozazek «giro ona sortu zuten, inolako istilurik sortu gabe, eta jaibusaren geldialdi ugariak zirela-eta luzatutako bidaia guztian kantak abestuz».

Guztira, hirurehun pertsona baino gehiagok erabili zuten Sakana aldeko jaibus bere estreinaldian, eta zenbait geldidunetan jendea autobusera sartu ezinik gelditu zen. Horregatik, arduradunek beste autobus baten beharra azpimarratu zuten; bihar bertan ospatuko diren Irurtzun eta Bakalkuako jaietarako «bi autobus» jarriko dira. Jaibusaren irteera orduak 22:00etan eta 24:00etan dira. Itzultzeko lau ordu daude: 3:00ak, 4:30ak, 6:00ak eta 8:00ak, adin guztietako jendearentzat pentsatutako itzulerako orduak.

Jaibus eta beste neurri batzuk

Josunek eta Lucik esan zigutenez, «Sakanan ez dira istripu bereziki larriak gertatzen, baina hemen ere izaten dira. Irurtzun aldean batik bat. Beraz, istripuen prebentzio kanpaina bat hasteko asmoa azaldu genion Sakanako Mankomunitateari, eta horrek Nafarroako Gobernuari egin zion proposamena». Jaibus ez da Sakana alde-

Josune Zabala eta Luci Gonzalez de Pedroso, Irurtzun eta Etxarriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileak, Jaibusaren kartelak eskuetan hartuta.

INAKI VERGARA


Erriberan eta Baztanen ere antzera

Sakanan jaietara eraman eta ekartzeko autobus bat jartzeko ideia 1992az geroztik Erribera aldean eginiko ekimen baten arrakasta ikusi ondoren sortu zen. «Erriberan *Voy y vengo* («Banoa eta banator») izenaz ezagunak diren autobusen joan-etorriak ezagutu ondoren otu zitzaigun antzeko zerbitzu Sakanan antolatzea». Josunek eta Lucik aitortu zigutenez, Erriberan aski ezagunak diren autobus horiek ia hamar urte daramatzate martxan, eta Erriberako herritarrek harro daude, gainera, garraio publiko berezi horrekin. Luci eta Josunek esan zigutenez, Sakanan Jaibus hemendik urte batzuetara «hain onartua izatea» da haien ametsa. Baina, Erriberan ez ezik, Baztanen ere badute erakundeek antzeko zerbitzu bat eskaintzeko asmoa. Baztango herriek baztandarren biltzarrean aurkeztu dute herrietako jaiak suspertzeko autobus bat joan-etorrian ibiltzeko proposamena, baina oraindik ez dago ezer erabakia. Biltzarrean erabakirik hartzen ez bada, baliteke herriek hartzea autobus zerbitzua eskaintzeko erabakia; hala, Erratzun eta Arizkunen egitekoak diren jaietan egonen da autobusa. Lehen, herrietatik Elizondora joateko autobusak jarri izan baziren ere, orain alderantzizko zerbitzu egin nahi da. Baztango herri txikietako jaietan herritarrek bakarrik ibili ordez bailara osoko jendea bertara joan ahal izateko, inguru horretan ere ugariak diren alkoholemia kontrolen beldurrik gabe.

an auto istripuen prebentzio kanpainaren barnean eginen den ekimen bakarra. Esate baterako, «Nafarroako Gobernuari esker, alkoholometroak banatuko dituzte Sakanako tabernetan, batik bat gazteei zuzendutako kanpaina izan arren helduentzat ere arazo larria dela gogoan izanez, estatistikek garbi uzten baitute alkoholarekin lotutako auto istripu gehienetan pertsona helduak izaten direla tartean. Bestalde, informazio eskuorriak ere kaleratuko dira, sexuaren eta pisuaren arabera alkoholemia kontrol batean positibo emateko behar duzun alkohol kopurua gutxi gorabehera kalkulatzeko eta alkoholaren eragin zitala azaltzeko».

Sakana aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek beti eman izan diote garrantzia alkoholaren eta drogen inguruko informazioari, baina Jaibus haratago doa, trafiko istripuen kanpaina baten barne baita. «Bide batez jende gaztea aspalditik eskatzen ari zen zerbitzu bat eskaini ahal izanen dugu, eta argi dago gazteez gain gurasoek ere oso pozik daudela», esan ziguten Josunek eta Lucik, autobusa hemendik urte batzuetara Sakanako biztanleen egunerokotasunean erabat onartua izanen delako itxaropena azaldu zuten heinean.

Asier Legarda-ereño



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Zenbait edizio faksimile berriez (I)

Euskal testu zaharrak laket ditugunok pozez hartu dugu oixtian karrikara zenbait faksimileen ateraraztea, tartean orain arte guztiz kausigaitzak direnak ere bai



Voltoire. Ez da luze igaro gure «Klasiko bitxi arrunt klasiko» zutabe honetan NUPeko liburutegiaren altxorrez iharduki genuenetik. Orduan NUPeko liburutegian gordetzen diren liburu baliosen artean Xuriorrena eta Voltoirerena azpimarratu genituen, eta Voltoirerren *Tresora*-ren berri ematerakotan akats larria labandu zitzaigun, izan ere, berriki agertu den liburu honen azken faksimilea ez baitu Xarritonek atondu Xarles Bidegainenek baizik. Bihoa ezeren aitzinetik geure barkamen eskea huts galant honengatik, izan ere entzunez aritu baikinen edizio berri honetaz, anartean eskuragarabe genituela. Azkenik, noiz edo noiz iritsi da Iruñeko liburu dendetara, ale bakan batzuk baizik ez badira ere.

Bidegainenek prestatuturiko edizioa, bestalde, *princeps*-a dugu, 1620koa hain zuzen ere, eta horrek ere berebiziko balioa gehitzen dio fotokopiari. Voltoirerren *L'interpréte ou traduction du Français, espagnol et basque* lehenbiziko edizio honen liburuki bakarra geratzen zaigu, jada Vinsonek argitu zigun gisara, Bordeleko liburutegian gordetzen dena. Arras zehatza zen Vinsonek jaunak, bestalde, ez zigun edizio honen argitaratze urtea eman, XVII. mendekoa zela baizik ez. Bidegainen esker, ordea, orain badaukigu Voltoirerren liburu hau lan goiztiar oso izan zela, 1620koa hain zuzen, eta liburu zaharrenekin agitu antzera, Euskal Herritik kanpo Lyongo A. Rovyer erregearen inprimatzaile baitan agertu zen, ondo-

ren atera edizioekin gertatu zenaren kontrara.

Escualdun cocinera

Voltoirerena ez da Manucius deitu editoreek atera faksimile bakarra. Iruñeko liburu dendetara 1864ko *Escualdun cocinera* famatua ere iritsi zaigu. Honen faksimilea zerbait zaharxeago da, 1899ko abenduan agertu baitzen. *Escualdun cocinera, ceinarekin nornahic cocina ona errechki equin baitecaque* Baionako Zilhargin karrikako 12. zenbakian zegoen Cluzeau liburu eta paper martxantaren baitan izan zen inprimaturik idazle-izenik gabe, alabaina ia gauza segurra da egilea sukaldariago zela euskal idazlea baino, hasierako oharrek sa-

kilikagarriagoena ere bai. Hona hemen etxeko *kirsch wasser* delakoa: «Hartzen tuçu guereci hechurrak, crascaten tuçu eta botatcen agoardienterat. Uzten tuçu goçatcerat abricot hechur amandarie gabiak eman ahal içan arte. Ussten tuçu oraino goçatcerat bi ilhabete, guero pasatcen duçu. Kirsch wasser guisa hau hain ona da eta gustu bera du çoina erosten beitate hainitz khario, eta proguechu bera estomakeco».

Alabaina, santujaleetan horren oparora den gure literatura urrian honakoa ez da argitaratu emaniko sukaldaritzari bakarra. Tolosako Eusebio Lopezek moldiztegi ezagunean *Cocinan icasteco liburua chit bearra famili gucietan lendabicoa eusqueras* izenburuko liburua atera zen 1889an, 58 orrialdeko liburuttoa, 67 errezetarekin hain zuzen.

Honetan ere ez da egile izenik agertzen, eta inolako sarrerarik gabe zein inondik inorako kokagarri aurkezteke, «gatzelako eltze modua» izeneko errezetarekin hasten zaigu testua. Izenburuak argikiro salatzen digunez, egile ezezagun honek ez zuen ezagutzen oraingoan Manucius-ekoek ateratako fak-

similearen jatorrizkoa, eta hortaz «lendabizikoa euskeraz» ezarri zion. Oraingoan aukera polita daukagu iparraldeko errezeta bilduma ezagutzeko, alabaina, eskertzekoa zatekeen testu zaharrenekin sarreraren bat sartu izan baltz errezeten kokagarri.



latu bezala: «Liburu huntan hanitz gauça frantxes guisa izendatuac içanen dire ezdazkiulacotz escuaraz icenac». Hirurogei orrialdetan barrena 150 errezetatik gora eskaintzen dizkigu egile sukaldari ezezagun honek, bat bedera goxoago, eta tartean edari ezin

Patziku Perurena



Bizia gatzetan

Gatzak eragin izugarria izan du kultura unibertsal guzian, baina, mundu zabaleko antropologoez jasotako sinbologia ugariaren muintzat, Horodotoren pasarte xumeok parako nituzke pozik:

«Kostaldekoko libyarrak nomadaz goitik, barrualdera, piztien Libya dago, eta piztienaz goitik hondarrezko gainak hedatzen dira, egyptarren Thebastik Heraklesen Zutabeearaino luzatuz. Gain horietan, hamarren bat eguneko bidealdi, kozkor haundiko gatz mordoak daude muinoetan, eta muino bakoitzaren tontorrean gatz artetik ur fresko eta geza ateratzen da, eta horien inguruan bizi dira eremurantz eta piztien lurraldeaz goitik azken biztanleak.

1.- Thebastik hamar eguneko bidean barrena *amondarrik* dira lehenak. Hauek badute beste iturburu bat, eguna zabaltzean epel eta plaza jendez betetzean hotzago egon ohi dena; eguerdia iritsi orduko hotz hotz bihurtzen da. Hain zuzen, orduan ureztatzen dituzte baratzeak; eta eguna itzalduta ahalean ur hotza epel-tzen hasten da, berriz, eguzkia sartzearekin batera oso epel-tzen den arte; eta gero eta epe-lagotzen joanez, gauerdia iristerako borborra irakiten du, eta handik egunsentira arte, berriz, hozten joaten da. Honi *Eguzkiaren Iturburu* deitzen diote.

2.- Amondarren ondoren, beste hamar eguneko bidean, amondarren antzeko beste gatz muino bat eta ura dago, eta honen inguruan gizajendea bizi da; eta lurralde horrek *Augila* du izena. Lurralde horretara joan ohi dira nasamonak palmondoen uzta biltzeko.

3.- Augilatik beste hamar eguneko bidean beste gatz muino bat dago, gainerakoek bezalaxe, ura eta palmondo igali emaila ugari duena; eta

bertan garamanteak izena duten gizasemeak bizi dira, herri hagitz handia, gatzaren gainera lurra botatz laborea eraitzen dutenak.

4.- Garamanteengandik beste hamar eguneko bidean beste gatz muino bat eta ura dago, eta horren inguruan bizi diren gizonei ataranteak deritze: guk dakigunetan munduko bakarrak dira izenik ez dutenak; guzietan batera ataranteak deitzen bazaie ere, bakoitzak ez baitu bakarka inolako izenik. Eguzkiak neurri gain jotzean madarikatu egiten dute, eta irainka hartu, gizonak eta beuren lurrak kiskaltzen dituelako.

5.- Gero, beste hamar eguneko bidean beste gatz muino bat dago urarekin, eta honen inguruan ere gizonak bizi dira. Eta gatz haitz honetatik abiatuz Atlas izena duen mendia dago. Meharrak eta guziz biribila; hain garaia dela diote, non haren gailurrak ikusi ezinezkoak diren. Bertakoek Zerua-zen Zutabea dela esaten dute. Gizonok mendi horretatik dute beren izena: atlanteak.

6.- Atlante hauengandik aurrerokoena ezin dezaket esan, baina, izatez bada, haruntzago, gatz harrobirik eta giza biztanlerik. Hauen guztien etxeak gatz kozkorrez eginak daude. Izan ere, Libyako eskualdeok euri gabeak dira, euria eginen balu, hormak, gatzekoak izatean, urtu eginen bailirateke. Bertan itxura zuri eta gorriko gatzak ateratzen da. Eta lurralde horietaz goitik, libiako hegoaldera eta barrualdera, dena eremu da, urik, pizirik eta zuhaitzik gabea, eta bertan ez dago ezeren ezetasunik».

Gatza finitu da, bizia ere bai. Gatzik gabea, bizitasunik gabea, guretzat oraindik. Bibliako gatza eta beste sineste askotakoa, horixe besterik ez da: aurren eta azken bizi aztarna: ura sutan, sua uretan. Eta begira: su/ur hauetxek beste genomarik ez dugu bizidunok munduan.

Ziria

• Motxorrosolo •

Iñakiren galdea


UEUK eginiko gonbitari erantzunez, *Clio* lagun, filosofiarren eremuan elkartuko dira. Haien artean irekitako tartea zulo bilakatu ote den ezagutzeko parada. Bizkitartean, Iñakik azken *Hika*-n plazaraturikoa erantzunik gabe. Ausartuko al dira?

Tomas Sobrino

MARGOLARIA

«Paisaiak batzen gaitu»

Elizondoko Jaime Urrutia kaleko 23. zenbakian bere azken koadroekin erakusketa zabaldu zuen atzo Tomas Sobrino margolari baztandarrak. 1992. urteaz geroztik, urtero egiten du Sobrinok erakusketa udan, Baztango beste hainbat margolarik bezala. Pinturaz gozatzeko eskaintza zabala dute bisitariak Baztanen urtero.



● CRISTINA BERIAIN

ERAKUSKETA ZABALTZEKO azken prestaketak egiten aurkitu genuen astelehenean Tomas Sobrino Elizondoko Jaime Urrutia kaleko galerian. Bere koadroek ingururuta, Baztanen pinturarako dagoen zaletasunari buruz eta Bidasoako Eskolaz mintzatu zaigu Elizondoko artista.

■ **Zer ikus daiteke zure erakusketan?**

Urtero udan erakusten dut urte osoan egindako lana. Nire azken koadroak dira, berriak guztiak. Gehienek Baztango txoko eta paisaiak agertzen dituzte, baina badira Nafarroako beste herritako paisaiak ere, Tafallakoak eta beste hainbat lekutakoak.

■ **Zenbat urte daramatzazu udan halako erakusketa zabalitzen?**

1992. urtean hasi nintzen. Orduetik, urtero egin dut, oso esperientzia polita delako.

■ **Ez zara bakarria; Baztango margolari gehienek erakusten dituzte euren lanak uda ailegatzen denean. Zer dela eta?**

Bai, ohitura hori hartu dugu, eta oso polita da. Jende asko etortzen da Baztanera jakinda hemengo margolarien lanak ikusteko aukera izanen duela. Dozena erdi-edo antolatzen dira urtero. Agian bakar bat ikustera jendea ez litzateke etorriko, baina sei bat

daudenez, aitzakia badute, eta, bide batez, Baztan ezagutzeko aukera dute.

■ **Guztien artean erabakitako ekimena da? Zein da zuen helburua?**

Ez gara ados jarri. Pixkanaka hasi ginen, gutxiago hasieran eta gero eta gehiago. Ana Mari Marin eta Jesus Montes hasi ziren euren etxeak zabalitzen udan, eta, Kultur Etxean ere urtero antolatzen da erakusketa bat. Apezteak ere Erratzuko bere etxea irekitzen du, eta nik, hemen egiten dut erakusketa. Orain galeria pribatu berri

bat ere zabaldu da Elizondoko. Guztien artean eskaintza zabala osatzen dugula uste dut. Baztanen, gainera, urte osoan dago pinturaz gozatzeko aukera. Margolari asko eta zaletasun handia dago.

■ **Erakusketa Elizondoko abesbatzako zuzendari Juan Erasolaetxeari eskaini diozu. Abesbatzaren jarduerarekin lotu duzue Baztanen dagoen margolari kopuru handia.**

Egia erran, zaila da azaltzea Baztan bezain leku txiki batean zergatik dagoen hainbeste margolari. Abesbatza, ziurrenik, ez da arrazoi bakarra izanen, baina zerikusia handia izan duela uste dut. Nik harreman handia izan dut Erasorekin, eta musikarako ere zaletasun handia daukat. Abesbatza garrantzitsua izan da hemen, sentsibilitatea sortu duelako, eta, azken finean, arte mota guztiak lotuta daude, elkarri eragiten diote.

■ **Bidasoako Eskolaz asko hitz egin da. Zuk zer iritzi duzue; horrelakorik izan dela uste duzue?**

Beno, nik uste dut zonal-

Baztango eta Nafarroako beste hainbat herritako paisaiak agertzen dituzten koadroekin batera, Baztango herri eta txokoei buruzko lamina bilduma egin du Tomas Sobrinok irailaren 3a bitarte zabalik egonen den erakusketarako.

Elizondoko jaioa da Sobrino, eta 20 urte daramatza Baztango paisaiei so, bere koadroak osatzen. Montes Iturrioz, Vazquez Diaz edo Apezteak margolarien eragina aitortzen du bere lanetan. Sobrinoren lan figuratiboez geometriarantz jo dute azken urteotan.

Elizondoko pintoreak biziki maite du Apezteak lagunarekin margotzera ateratzea. Baztango margolarien artean «oso harreman ona» dagoela azpimarratu du. Etorkizunari buruz baikor da, pinturarako zaletasun handia dagoelako Baztanen.

dea dela batzen gaituena. Paisaiak margotzera bultzatzen gaitu. Eskolaz hitz egitea, hala ere, zaila dela uste dut, horrek erran nahi duelako ezagutza komun zehatzak badaudela, eta, hemen, batez ere, paisaia da gure elkargunea. Gero, bakoitzak paisaia hori interpretatzeko modu berezia du. Egia da, dena den, eskola sortu duten margolariak izan direla, Gaspar Montes Iturrioz edo Vazquez Diaz adibidez. Natura ulertzeko modu bat markatu dute, paisaia begiratzeko modua.

■ **Abuztuan margo ikastaroa egingen duzue azken urteotan bezala?**

Bai, Apezteak eta ni ariko gara, abuztu osoan, astelehen, asteazken eta ostiraletan, goizez. Hainbat urte daramatzagu ikastaroa antola-

tzen, eta oso esperientzia polita da. Denbora gutxi edo asko daraman jendeak bat egiten du, bakoitzak artea ulertzeko modu bat du. Kalera ateratzen gara, eta jendea pozik gelditzen da. Arteari buruzko era askotako ikuspuntuak azaltzeko eta ezagutzeko parada ematen digu ikastaroak.

■ **Ikastaroan ari den jendearen lana ikusita, nola ikusten duzue etorkizuna? Margolari berriak sortzen ari dira Baztanen?**

Bai, baietz uste dut. Ikastaroan, hala ere, Iruñeko eta beste lekuetako jendeak ere parte hartzen du. Hemen etorkizun polita dagoela uste dut. Haur asko ari da ikasten, eta urte batzuetara ikusiko dugu zer gertatzen den.

→ Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Nire arimaren mapa

Harro daude zientzialari guztiak, izan ere, azken mende honetako aurkikuntzarik handienaren aurrean omen gaudete, eta bitartean, bakoitza bere gauzetan, gu ez gara apenas enteratu. Egia esan, giza genomarenak ez du zerikusi handirik orain arte ezagutzen genituen mapa kartografikoekin. Ikusi ahal izan ditugun irudi bakantetan, borobil arraro batzuk agertzen zaizkigu, karratu eta lauki ulerkairak sortuz, eta gizabanakook hori garelako diote progresoa-aren apologistek, gene kateak osatzen duten mendizerra handi bat baino ez.

Antza denez, ikur horien baitan, gure sudurraren tamaina, begien kolore arrunta, bizkarrezurraren okertze-maila edota ibilkera traketsa izkiriatuak daude, idazle kasgar bat gure akats guztien erantzule bailitzan. Horregatik, beste ezereen gainetik perfekzioa bilatzen duten horiek pozarren dabilta mapa honekin, honetan dauden bihurtuak zuzendu eta guztiok guapo, altu eta lirainagoak izango gara. Eta mundua borobilagoa, jakina.

Zientziaren onura bakoitzetik bi gaitz berri sortzen direla uste dugunok ez dugu aurkitu, ordea, irri-algararako horrenbeste arrazoi. Norberaren geneen errepide mapa enpresa pribatu, edonongo gobernu edo Hitler izan nahi duen ero baten eskutan egon ahal dela pentsatze hutsak kezka alar-gorria pizten du ezinbestean gure buru amorfoetan.

Baina alderdi etiko-alarmista alde batera utzita, ni bezalako gizabanako xumeoi mapa honek eguneroko bizimodu petralean ekarriko dizkugun abantailak zeintzuk diren ez ditut batere argi ikusten, dena lanbrotuta. Geneen irakurketaren bitartez jakingo dute nire aldarrearen eguneroko gorabeheren zergatia? Urrunetik so egiten duten begi horiek sorrarazten didaten liluraren arrazoiak? Azaldu ahalko dute zergatik begiratzen dudun horrenbeste basoaren hondora? Esango al didate inoiz zer bilatzen dudun gauaren muturreraino egiten ditudan bidaietan? Akaso posible izango al dute jakitea non bilatu behar den pelikuletako maitasuna?

Ez dut uste mapa ziztrin horrekin halakorik lortuko dutenik. Esperoan segituko dut, ea inoiz nire arimaren mapa, atlas osoa, dezifratzeko gai izango diren. Hala egingo balute gehiago gorrotatuko nituzke, bizitzak emozioa galduko lukeelako.

gure aukerak

MUSIKA

- **Irurtzun:** Gaur, 00:30etik 04:00etara dantzaldia Drindots taldearekin. Bihar, 01:00etatik 05:00etara Akelarre taldearekin, eta Igandean, Joselu Anaiak-ekin.
- **Altsasu:** Bihar, 24:00etan, Altsasuko Foru enparantzan, Los Roslis eta Dikers taldeek kontzertua eskainiko dute. Aurrez, toki berean, patin, patinete eta txirrin- duekin erakustaldia eskainiko dute.
- **Irurita:** Bihar arratsaldeko 19:00etan, Zerbezaren Festaren inguruan, ajariguan, Tutumba, The Bon Scott Band, Rosendo, Hamlet, 2Kate, Zeta eta Guateque All Stars taldeak izanen dira entzungai. Sarrerak 2.500 pezeta balioko du.
- **Elizondo:** Edurne Ubaniren piano emanaldia izanen da bihar Arizkuenean, 19:00etan.
- **Elgorriaga:** Bihar, 24:00etan, Basajaun taldearen kontzertua. Igandean, Abaxi taldeak joko du eta astelehenean, Gau Bela taldeak.
- **Iruña:** Asteartean Iruñeko Zitudadelan Enrique Morente andaluziarrak Las voces bulgaras angelite taldearekin batera kontzertua eskainiko du.

ZINEA

- **Zangoza:** Asteazkenean, 22:00etan, Rincon del Carmen plazan *Jack, Rey del Amazonas* pelikula eskainiko da.

ANTZERKIA

- **Zangoza:** Boni & Caroli taldeak

Side-Car izeneko antzezla- na eskainiko du gaur 22:00etan. Arkupeetako enparantzan.

DANTZAK

- **Tafalla:** Datorren ostegunean, 22:00etan, zezenplazan, Gonta Ukrainako dantza taldekoek kosakoen dantzak eskainiko dituzte.

BERTSOAK

- **Zubieta:** Bertso afaria izanen

da igande honetan, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin.


ERAKUSKETAK

- **Tafalla:** Bihar da azken eguna *El Embudo* izeneko argazki erakusketa ikusteko. Paraguayko Panchito Lopez adin txikikoentzako kartzelako argazkiak dira ikusgai, Jorge Sanzek 1990-1997 bitartean eginikoak. Tafallako erakusketa aretoan.

BESTELAKOAK

- **Egues:** Egues ibarreko Udalak bidaia ludiko-kulturala antolatu du ibarreko emakumeentzat irailaren 15erako. Egun bateko irteera izanen da: Donostiko La Perla bainuetxera goizean, Lesakan bazkaldu eta, azkenik, Sarako haitzuloetra bisita egingo dute. Izena abuztuaren 1a baino lehen eman behar-ko da. Egueseko udaletxean.

• INAKI VERGARA



San Pedro zubia...

Iruñeko Arrotxapea auzoan hartua da argazkia hau. Iragan urteko abuztuan itxi zen Aranzadi udal igerilekuetara joateko hain erabilia zen San Pedro zubia (argazkikoa), ustez zubi zaharra egokitze lanak zirela arrazoi. Lanean hasi ziren bai, baina San Pedro zubian inork lan egin ez duela badira hilabete batzuk. Auzotarrek udako bereoi ihesi sarri joko dute aurtengoan ere Aranzadi igerilekuetara, baina, zoritxarrez, zubiaren egokitze lanak ez dira oraindik bukatu. Igerilekuak zabalik daude, baina bertara joan nahi dutenek ehunka metro gehiago egin beharko dituzte oinez, edo bestela, ongi konpondu gabeko zubitik igaro beharko dute.